


GAZTEZULO ALDIZKARIAREN  
I. BIDEO LEHIAKETA

HI ETA HIRE



MUNDUAK

PARTE HARTU! SARI MUNDIALAK




gaztezulo  
HI ETA HIRE MUNDUAK

30  
URTE



KULTURA SAIA  
Hikuntza Politikaren Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceministerio de Política Lingüística



## SAKATU REC BOTOIA!

ERAKUTSI ZUEN MUNDUAK! HORRA HOR IRUDIKO ALFRED HITCHCOCK HANDIAK ETA GAZTEZULOTARROK ZUEI, IRAKURLEOK, PROPOSATUTAKO ERRONKA. AZARO ERDIALDERA ARTEKO EPEA DUZUE BURUARI ERAGIN ETA ZEUEN MUNDUA DEFINITZEN DUTEN APETAK, ZALETASUNAK ETA BESTE BIDEO LABUR BATEAN ISLATUTA GUREKIN ETA GAINERAKO ZULOZALEEKIN PARTEKATZEKO. EPAIMAHAIK ABENDUAN EMANGO DITU JAKITERA SARITUTAKO LANAK. GAZTEZULO.COMEN JON GARAÑO ETA JOSE MARI GOENAGA '80 EGUNEAN' FILMEKO ZUZENDARIEN AHOLKU SORTA TOPATUKO DUZUE, BIDEO TXUKUNA EGIN AHAL IZATEKO. SEKULAKO SARIAK DITUZUE ZAIN!

## LEHIAKETAREN OINARRIAK

**Gaia:** Bideoek “Hi eta hire munduak” gaia izango dute oinarri

**Iraupena:** gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutuko iraupena izango dute.

**Epea:** Bideoak urriaren 1etik azaroaren 15era bitarteko iragarriko dira.

### Parte-harzaileak:

16 urtetik gorako gazteak. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko balitz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena izatea.


### Parte-hartzea:

Pertsona bakoitzak nahi beste lan bidal ditzake.

Bideoak Euskaltube-ra edo Youtube-ra igo behar dira eta linka gaztezulo@gaztezulo.com-era bidali behar da, honako datu hauekin batera: parte-harzaileen izen-abizenak, jaiotze-data, helbidea, ikasleak izanez gero non ari diren ikasten, eta telefonoa, bideoaren titulua eta deskribapena. Ez da antolatzaileen ardura izango bideoak Youtuben edo Euskaltuben gaizki ikustea, arazoren bat izanez gero. Bideoak gure web gunean jarriko ditugu ikusgai, eta baita GAZTEZULOren Facebook-en orrian.

### Araukak:

- Bideoak EUSKARAZ izan behar du. Hau da, bideoaren hizkuntza edukia (ahotsa, elementu grafikoak...) euskarazkoa izango da.
- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaratu gabek izan behar dute. Ez da onartuko aurreko beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.
- Jaso ahal sarreratu dira lanak. Hala ere, antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea (giza eskubideen kontrakoak direla uste badu: bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta ez dira onartuko).



- Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukia arduraduna dela.
- Saritutako eta hautatutako bideoen egileek GAZTEZULOri uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreprodukzio-eskubideak.

### Epaimahaia:

GAZTEZULOki izendatutako aditu talde batek osatu du (ikus-entzunezko esparruko izen ezagunak). Lanak ikusi eta puntuatuko ditu kalitate teknikoa, originaltasuna, talde lana eta sormena kontuan hartuta.

### Sariak:

- GAZTEZULO SARIA: Bideo onenaren egileak 1.500 euroko saria jasoko du.
- Donostiako EUSKARAREN HIRIA BIDEO SARIA: Euskararen Udal Patronatuak Donostian bizi edo ikasten ari diren parte-harzaileen artean aukeratu du saritua. Saria tresna informatikoak edota ikus-entzunezkoak erosteko 1.000 euroko bonua izango da.